



ACT- MC-2020/0001

KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA

AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN 3 ZENBAKIDUN ARTXIBO ELEKTRONIKOAK IREKITZEA. ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULA BITARTEZ EBALUATZEKO DOKUMENTAZIOA

Espediente zbkia: 13-SR-79/2019

Kontratuaren xedea eta gai-zerrenda: Segurtasun arduradunaren lanak, 2010eko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretua, larrialdiei aurre egiteko zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen aplikagarri den Aldundiaren errepide sareko tuneletarako (13-SR-79/2019) .3.ARTXIBOAK IREKITZEA ETA PROPOSAMENA EGITEA:

Eguna: 2020ko urtarrilaren 13

Hasiera /amaiera ordua: 9:00/10:00

Tokia: Bide Azpiegituretako Departamentuaren 2 gela balioanitza (Miramon pasealekua, 166.)

Bertaratutakoak:

Mahaiburua: Jesus Maguregui Arregui, Bide Azpiegituren Obretako eta Eraikuntzako Zerbitzuko burua.

Bokalak: Susana Luzuriaga Mocoroa, Bide Azpiegituren Bigaitze eta Berrikuntzako Zerbitzuko burua.

Adolfo Sesma Miguel, Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuko ITOPa.

Elixabete Martinez Iruretagoiena, Departamentuko idazkari teknikoa.

Itziar Aristondo Fernández, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontu-hartzailatza eta Auditoretza Zerbitzuko burua.

Idazkaria: M^a Carmen Delgado Vallejo, Kontratazio Zerbitzuko buruaren orde.

IDOM enpresaren ordezkari bat etorri da ekintza publiko honetara.

Ekintza honetarako mahaiburua M^a Carmen Delgado Vallejo izendatu du idazkari, Kontratazio Zerbitzuko buruaren orde, administrazio-klausula partikularren agiriko 24.baldintzak diotenaren arabera.

Goian aipatutako lekuan eta orduan, aurrez adierazitako kideekin, Kontratazio Mahaia eratu da lizitazioan 3 zenbakidun artxiboa irekitzeko (X. eranskina. Eskaintza ekonomikorako eta formula bidez ebaluatze eskaintzako beste elementuetarako erdua). Egintza publikoari hasiera eman zaio formula aritmetikoen bitartez neurtzekoak ez diren adjudikazioa irizpideen balorazio-txostenaren berri emanez, eta Kontratazio-mahaia onartu egiten du. Hau izan da enpresak lortu duen puntuazioa:

| Hurrenkera | Lizitatuzaileak | Puntuazioa (0-44) |
|------------|--|-------------------|
| 1 | IDOM CONSULTING, ENGINEERING, ARCHITECTURE SAU | 41 |

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrek agintzen duten eran, 3. artxiboa ireki eta irakurri da. Eskaintza ekonomikoaren dokumentazioa erantsiko da aktari.

Formulen aplikazioaren bitartez balioesteko irizpideak jarraian aipatzen dira:

| IRIZPIDEA | | HAZTAPENA |
|-----------|---|-------------|
| 2.1 | Prezioa | 0- 44 puntu |
| 2.2 | Hobekuntzak erantzun denboretan eta txostenak egiterakoan | 0 - 6 puntu |
| 2.3 | Eskatutakoa baino euskararen ezagutza-maila altuagoa, kaudimen tekniko gisa | 0 - 2 puntu |
| 2.4 | Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun irizpidea | 0 - 2 puntu |
| 2.5 | Ingelesaren ezagutza | 0 - 2 puntu |



Behin irekita, eskaintza ekonomikoa hau izan da:

| Kontzeptua | Neurketa (metroak) | Hilabeteak | Unitateko prezioa (€) | GUZTIRA |
|---|--------------------|------------|-----------------------|--------------|
| Segurtasun arduradunaren lanen hilekoa, tuneleko hodiaren metro lineal bakoitzeko | 9.926 m | 24 | 0,68 € | 161.992,32 € |
| % 21eko BEZa | | | | 34.018,39 € |
| ZERBITZUAREN ESKAINTZA BEZa barne | | | | 196.010,71 € |

Bestelako dokumentazioa hau izan da:

| | HOBEKUNTZAK ERANTZUTEKO ETA TXOSTENAK EGITEKO | EUSKARA-MAILA | BERDINTASUNA | INGELESAREN EZAGUTZA |
|------|--|--|---|--|
| | 0-6 | 0-2 | 0-2 | 0-2 |
| IDOM | Lau txostenak murrizteko eskaintza aurkeztu du | Bi aholkularien euskara-ezagutza aurkeztu du | Bi emakume jartzen ditu agirian adierazita erantzukizuneko lanpostuetan | B2 maila egiaztatu dituen bi pertsona jarri ditu |

Administrazio-klausula partikularren agirian jasotako adjudikazio-irizpideak kontuan hartuta (19.atala) honela geratu da eskaintzaren puntuazioa (Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuaren txostena eranstean non esleitzen diren puntuazioak):

| ENPRESA | | Puntuazioa | | |
|---------|--|------------|------------|---------|
| | | 2.ARTXIBOA | 3.ARTXIBOA | GUZTIRA |
| 1 | IDOM CONSULTING, ENGINEERING, ARCHITECTURE SAU | 41 | 12 | 53 |

Aurreko guztia kontuan harturik, eta 9/2017ko Legearen 150.artikuluari jarraituz, Kontratazio Mahaiak erabaki du kontratazio-organoari aurkeztuko zaiola hurrengo proposamena:

- Adjudikazio-proposamena IDOM CONSULTING, ENGINEERING, ARCHITECTURE SAU enpresaren alde izango dela. Eskaintza bakarra da, eta administrazio-klausula partikularren agiriak ezartzen dituen baldintzak betetzen ditu.
- Enpresaren eskaintzaren zenbatekoa 161.992,32 eurokoa da, BEZik gabe (0,68 unitateko prezioa).
- Prozedurarekin jarraitzeko enpresari errekerimendua egingo zaiola, 9/2017 Legearen 150. artikulua araber.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau.

Donostian, 2020ko urtarrilaren 13an

MAHAIBURUA,

Sin.- Jesus Maguregui Arregui

IDAZKARIA, ordezkapenez

Sin.- Mª Carmen Delgado Vallejo